

BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

BERDINTASUNAREN KUDEAKETA ARLOKO PRAKTIKAREN IZENBURUA: Emakume ikuskariak Uraren Euskal Agentzian.

BILATZEN DITUEN HELBURUAK:

URA da Euskal Autonomia Erkidegoan uraren politika kudeatzen duen Eusko Jaurlaritzaren erakundea. Uholde-arriskuaren eta lehorteen kudeaketan, ur ekosistemaren babes integralean eta hornidura unibertsalean lan egiten dugu, kantitatea zein kalitatea bermatuz.

Eta, horretarako, ikuskaritza talde handi bat dugu, uren egoera aztertu, kalteak identifikatu edo zuzenketak eskatu ahal izateko ebidentziak biltzeko, edo, hala badagokio, arauari lotuta ez dauden jardunbide okerrak zigortzeko. Ikuskariak lurraldean erakunde honek dituen begiak dira, eta eguneroko solaskide zuzenak dira herritarrekin. Ikuskaritza talde horretan, emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute.

Tradizionalki maskulinizatutako sektore honetan azken urtean emakumeen kopurua igo egin da. Ekimen honekin, hain zuzen ere hori ikusarazi nahi izan dugu hiru helbururekin

- URAREN Berdintasun Planaren helburuetako batean lan egin, hain zuzen ere: Emakumeak eta gizonak behar bezala ikusaraztea URAREN komunikazioan.
- Gazteengana hurbildu lanpostu desberdinetan emakumeak duen presentzia islatuz, bide desberdinak ikus ditzaten
- Zeharka bada ere, URA berdintasunaren arloan egiten ari den lanaren berri herritarrei ematea.

Laburpena: <https://youtu.be/RLHNSltexRg>

Osorik: <https://youtu.be/NgpoH8JAu0M>

ENTITATE ARDURADUNA: Uraren Euskal Agentzia

BERDINTASUN-TALDEA (Uraren Euskal Agentziako Berdintasunerako antolaketa-egitura) (9 pertsonak osatua).

EMAKUMEZKOEN LANGILE-KOPURUA: 5 Langile guztietatik emakumeen ehunekoa: % 2,8)

GIZONEZKO LANGILE-KOPURUA: 4 Langile guztietatik gizonen ehunekoa: % 2,3)

WEBGUNEAK: <https://www.uragentzia.euskadi.eus>

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK:

Ingurugelak: Irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sare bat da, ingurumen-hezkuntzako planak eta programak koordinatzen dituen unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman. Kasu honetan interesgarria iruditu zitzaigun haiekin elkarlanean aritzea ikastetxeen bitartez ere gazteengana heltzeko bide osagarri bezala.

HASIERA DATA: Otsailaren 11

HARREMANETARAKO PERTSONA Iraia San Saturnino, Lorena Baranda

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 945011715/945011768

HARREMANETARAKO E-MAILA:

i-san@uragentzia.euskadi.eus/lbaranda@uragentzia.eus

HITZ GAKOAK:

Hona hemen praktikarekin harreman gehien dituen 5 kontzeptuak:

Estrategia	Enplegarritasuna
Pertsonak	Maskulinitateko Sektorea
Aliantzak	Lanaldiaren murrizketa
Hornitzaileak	Baimenak
Gizarte Erantzukizun Korporatiboa	Amatasuna eta aitatasuna
Erakunde Eredua	Kontziliazioa
Zeharkakoa	Telelana
Kualitatibo eta kuantitatiboa	Denboraren eta espazioaren antolamendua
Kudeaketa Sistematikoa, metologia edo prozesua	Erantzunkidetasuna
Diagnostikoa	Zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna
Berdintasunerako plana	Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea
Ikerketak eta genero analisiak	Bezeroentzako/erabiltzaileentzako arreta
Estrategian Integrazio	Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako protokoloa
Genero ikuspegia	Lan baldintzak
txertatzea/mainstreaminga	
Feminizidioa	Ordainsari- politika
Genero-indarkeria	Sailkapen profesionala
Jazarpen-puntu beltza	Kristalezko sabaia
Arriskuaren aurreikustea	Parekidetasuna
Barne komunikazioa	Lidergoa
Kanpoko Komunikazio	Interseksionalitatea, Aniztasuna
Komunikazio ez-sexista	Genero-ikuspegia
Gardentasuna	Emakume erreferenteen ikusaraztea
Publizitatea	Autodefentsa feminista
Nazioarteko egunak: kanpaina 22F, 8M, 25A	Ahalduntzea
Formazioa eta Sentsibilizazioa	LGTBIQ+ politikak
STEAM	Berdintasunezko maskulinitateak
Mentoretza	Emakume migratzaileak
Barne Promozioa	Gizarte Esku-hartzea

DESKRIBAPENA:

Berdintasun taldean ikuskari emakumeen lana islatzeko hainbat bide aztertu ziren: bideoa, erreportaje idatzia, podcasta. Azkenean, aurkeztu nahi zena ondo erakusteko, irudia garrantzitsua iritzirik, bideoa aukeratu genuen.

Hurrengo urratsa bideoaren iraupena erabakitzea izan zen. Istorio oso bat kontatu ahal izateko 5 minutuko iraupena egokia iruditu zitzaigun, gero ikastetxeetan ere erakutsi ahal izateko bideo bezala. Horrekin batera, minutu bateko laburpen bideoa osatzea erabaki genuen, hartara sareak gure mezua zabaltzeko bide egokia izanda ere, moldatzeko beharra ikusi genuen.

Hortik aurrera emakume ikuskariekin beraiekin hitz egiteko parada izan genuen. Azkenean, alde batetik partehartzea erabaki zutenak zehaztu eta bestetik ikuskari emakume talde osoari galdera sorta bat aurkeztu genien, eta haien ekarpenekin gidoirako ideiak atera ziren.

Behin bideoa prestatuta hori zabaltzeko ordua heldu zen. Alde batetik, URAREN sareak erabili ziren eta, beste alde batetik, Ingurugelakoekin hitz egin genuen. Ekimena hasteko egun egokia otsailaren 11: emakume eta neska zientzialarien nazioarteko eguna.

Bideoa zabaltzeko, aipatu dugun moduan, bi bide erabili ziren:

- Sare sozialak, kanpaina berezia eginik Instagramen, URAk dituen sareetatik gazteek gehien erabiltzen dutena dela ikusita.
- Ingurugelakoekin bilerak egin ziren eta hainbat ekimen aurrera eraman ziren. Otsailaren 11n haiek bideoaren berri eman zuten beren plataformetan. Ondoren bilerak izan zituzten proiektuan parte hartzen duten ikastetxeekin, materialaren berri emateko eta erabiltzaileei inkesta betetzeko proposamena eginez.
- <https://forms.office.com/e/yHN57VxQG2>

ALDERDI BERRITZAILEAK: Uste dugu ekimen hau lantzeko moduak, hau da, talde lanean jarduteak lagundu duela, ikuskariek berdintasun taldearen lana ezagun dezaten eta alderantziz. Era berean, beste talde batzuetan berdintasun taldeak egiten duen lanean interes gehiago piztu du.

Bide batez URAk berdintasunaren arloan egiten duen lana erakundetik kanpo ikusarazteko bide egokia dela uste dugu.

Azkenik, ikuskari motako lanpostuak ikastetxeetan gutxitan aurkezten direla uste dugu. Beraz, alde horretatik, gazteentzako lanerako bide berriak ezagutaraztea interesgarria dela iruditzen zaigu, bai eta emakumeak erreferente gisa lanpostu horretan eta Uraren Kudeaketaren arloan ikustea ere.

EMAITZAK (inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):

Zalantzarik gabe, praktika hori gauzatzeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan izan duen eragin positiboena izan da gure lankide diren emakume ikuskatzaileek proiektuan parte hartzea, zalantzarik gabe, horiek gabe ezinezkoa izango zitekeelako. Horri esker, genero-ikuspegia Berdintasun Taldeak kanpo zabaltzea lortu dugu agentzian, eta gainontzeko lankideen iruzkin eta iritziz oso positiboak jaso ditugu.

Ingurugelakoekin egindako lana positibotzat jotzen den arren, haiekin izandako elkarlanak erakutsi digu agian erakunde gehiagorekin elkarlanean aritzeak, eta ez gu geu bakarrik agertu garen moduan, positiboagoa izango litzatekela, zabalkunde handiagoa lortuz.

Bestalde, uste dugu erabilitako material mota hobetu edo osatu daitekeela: adibidez, jardunaldi presentzial bat edo komiki bat erakargarriagoa izango litzateke. Jakinarazten digute material asko jasotzen dutela, eta batzuetan ez dela erraza dena ikastetxeetan ematen diren eskoletan erabiltzea, eta ezin dutela nahi luketen zabalkunde guztia egin.

Oharra: 2023ko uztailaren 6an, Ingurugelak jakinarazi zigun irailaren 1etik aurrera berregituraketa garrantzitsua izango zela, eta horrek 3 lurrealdeetan ingurugelak ixtea ekar zezakeela. Irailetik aurrera, Berritzegune Nagusian sartuko dira, iraunkortasunerako hezkuntza-zerbitzuan, eta aldaketa asko aurreikusten dira. Informazio horrez gain, jakinarazi digute

ikasturte honetan zehar uste izan dutela ikastetxeek ez dietela behar bezala erantzun ingurugelek egindako proposamenei.

Ingurugelatik proposatzen da ikastetxeetan bideo hori Emakundetik eta sindikatuetatik jasotzen duten materialarekin batera zabaltzea, bikoiztasunak saihesteko eta inpaktu handiagoa lortzeko.

KUDEAKETAN INTEGRATUA: Gorago aipatu dugun moduan URAREN Berdintasun Planaren helburuetako bat honako hau dugu: Emakumeak eta gizonak behar bezala ikusaraztea URAREN komunikazioan.

ERAGINKORRA: Agentziaren giza baliabideak eta baliabide materialak baliatu dira jardunbide egokia gauzatzeko: besteak beste, plangintza, erregulazioa eta ezarpena dagozkien Zuzendaritzaren kontura izan dira, eta Agentziaren beraren funtzionamendu-gastu arruntetan sartu dira.

Ekipo informatikoak eta telefonia ibilgailuen atalera igarotzeko prozesua Agentziaren gastuen kontura izan da.

PARTE HARTZEA ETA PRAKTIKAREN IRISMENA: Agentziako langile guztiei intranetaren bitartez zein Berdintasun taldearen email baten bitartez ekimenaren berri eman zitzaion. Sare sozialen bidez eta Ingurugelakoen bitartez kanpoko erakunde eta herritarrei.

DOKUMENTATUA:

Youtube

[Mujeres inspectoras en URA \(resumen\):](#) 59 bistaratze, duela 3 hilabete

[Emakume ikuskariak URAn \(Laburpena\):](#) 238 bistaratze, duela 3 hilabete

[Mujeres inspectoras en URA:](#) 148 bistaratze

[Emakume ikuskariak URAn:](#) 215 bistaratze, duela 3 hilabete

Instagram



Facebook

Insights de la publicación



Estadísticas totales

Consulta más detalles sobre tu publicación.



Impresiones de publicación ⓘ

1703

Alcance de la publicación ⓘ

1686

Interacción con la publicación ⓘ

1

Insights de la publicación



Estadísticas totales

Consulta más detalles sobre tu publicación.



Impresiones de publicación ⓘ

39

Alcance de la publicación ⓘ

32

Interacción con la publicación ⓘ

1


Twitter

×

Txioei buruzko estatistikak



Ura Agentzia ✓ @uraEJGV · ots. 10



Bihar, Neska eta Emakume Zientzialarien Eguna ospatzen da. 🧑🏻🧑🏻🧑🏻

URako ikuskarien taldean emakumeen kopurua hazten joan da azken urteotan....



0



0



0

Inpresioak ⓘ

106

Engagements ⓘ

5

Xehetasunen
hedapena ⓘ

0

Jarraitzaile berriak ⓘ


0

Profileko bisitak ⓘ

0


Ura Agentzia

 @uraEJGV · ots. 10



Mañana se celebra el Día Internacional de la Mujer y la Niña en la Ciencia. 🧑🔬

El número de mujeres en el grupo de inspección de URA ha ido creciendo en los últimos años....



0



0



0

Inpresioak ⓘ

89

Engagements ⓘ

9

Xehetasunen
hedapena ⓘ

0

Jarraitzaile berriak ⓘ

0

Profileko bisitak ⓘ

1

ARRAKASTA-FAKTOREAK:

Arrakasta-faktore nagusizat jotzen dugu URAREN ikuskatzaile emakumeek beraiek kontatu izana beren historia lehen pertsonan. Lankide horien lankidetza funtsezkoa izan dugu zentzu horretan. Horrela, bideoa egiteko prozesuan, ikuskatzaile emakume talde handi batek, eta ez soilik bideoan agertzen direnek, parte hartu zuten bideoaren edukiaren diseinuan, horri dagokionez lantaldea osatzea lortu dugu, eta eguneroko lanean generoarekin lotutako alderdiak zalantzan jartzea eta birplanteatzea.

Kanpainak sareetan izan duen eraginak, batez ere Instagrameko kanpainak, lagundu egin du URAREN lana ezagutarazten eta aitorten handiagoa lortzen; eta gizarteak, oro har, lan horren berri izan dezan, bai eta lan horren garrantzia eta emakumeek sareetan duten presentzia ere.

TRANSFERIGARRITASUNA:

Gure ustez, praktika hori beste erakunde batzuetara zabaldu eta partekatu daiteke, kolektibo feminizatuetan edo maskulinizatuetan gizonei eta emakumeei ikusgarritasuna emateko.

IKASKUNTZA:

Sareek ondo funtzionatu dute, baina aurrera begira ikastetxeekin beste modu batean landu beharko genuke, agian, beste erakunde batzuekin batera.

JARDUNBIDEAN ERABILITAKO MATERIALA:

Jarraian, lehen deskribatutakoa erakusten duten adibideen eranskinak ematen dira.

Bideoaren laburpena <https://youtu.be/W1izAxdPtTI>

Bideo osoa: <https://youtu.be/wO0JpI9dfk0>

Inkesta <https://forms.office.com/e/yHN57VxQG2>